

Jasangarritasuna zeharkako gaitasun gisa zure irakasgaien lantzeko eman beharreko pausuak zerotik hasita

1 ECTS

Hartzaileak

Beren titulazioen curriculumean edo irakasgaietan jasangarritasuna zeharkako gaitasun gisa sartzeko interesa duten irakasleak eta graduko edo ikastetxeko arduradunak..

Sarrera / Ikastaroaren deskribapena

Ukaezina da gero eta globalizatuagoa, industrializatuagoa eta elkar harreman handiagoa duen mundu batean bizi garela. Horregatik, egungo gizarteak erronka berriei egin behar die aurre, hala nola klima-aldaketari, baliabide-eskasiari, pobrezari, aldaketa demografikoei edo pandemiei. Erronka horiek jasangarritasunaren inguruan biltzea proposatu dute adituek. Jasangarritasunaren kontzeptua ingurumen-kalitatearen ideiarekin soilik lotuta aurreikusten bada, berdintasuna edo justizia soziala bezalako alorrak barneratzen ditu, baita politika, ekonomia eta osasun gaiak ere. Ondorioz, gizartearen arazoak aztertzea eta konponbideak bilatzea ikerketaren eta lorpen akademikoen bidez, jasangarritasunaren helburua da.

Gaur egungo eta etorkizuneko gizarteak arazo horiek konpondu ahal izateko, funtsezkoa da ikasleen gizarte-erantzukizuna lantzea. Modu horretan, etorkizuneko profesionalek arazo horiek beren gain hartuko dituzte, erantzukizuna hartuko dute eta arazoen irtenbideetan parte hartuko dute.

Gizarte-erantzukizuna hezkuntza-maila guztiak barneratu behar ditu. Hala ere, espezializazioa dela eta garrantzi berezia du goi-mailako hezkuntzan, arlo zehatzetan garatzeko aukera ematen baitu.

Tailer honen helburua UPV/EHUko Giza Nutrizioko eta Dietetikako Graduan Jasangarritasunaren eta gizarte-erantzukizuna gaitasuna lantzeko ZEHARGAITUZ IKD talde egituratuaren esperientzia ezagutaraztea da. Esperientzia horretatik abiatuta, gradu ezberdinetako beste irakasle eta arduradun batzuek gaitasun hori edozein ezagutza-arlotan modu koordinatuan landu ahal izatea espero da.

Garatu beharreko gaitasunak

Tailer honetan gaitasun hauek garatu nahi dira:

1. Jasangarritasunaren dimentsioak identifikatzea eta horiek gure jakintza-arloan aplikatzean ezagutzea

2. Goi-mailako hezkuntzan landu beharreko jasangarritasunari eta gizarte-erantzukizunari lotutako azpi-gaitasunak ulertzea
3. Goi-mailako hezkuntzako ikasleen jasangarritasunerako gaitasuna eta gizarte-erantzukizuna ebaluatzeko tresnak aplikatzea
4. Gradu edo irakasgai batean jasangarritasuna eta gizarte-erantzukizuna gaitasuna zeharka garatzeko metodologia aktibo-kooperatiboetan oinarritutako jarduera espezifikoak lantzea, beti ere haren testuingurua kontuan hartuta (zer Gradutan ematen den, maila, jakintza-arloa)
5. Jasangarritasunerako eta gizarte-erantzukizunerako gaitasunaren inguruko ikasleen bilakaerari buruzko datuak biltzeko tresnak ezagutzea

Gaitegia eta lantzen diren GJH

1. Jasangarritasuna eta gizarte-erantzukizuna gaitasunaren definizioa
2. Graduetan ezartzeko proposamena: mailakatua, progresiboa, koordinatua
3. Ebaluazio-estrategia, irakasgaitik graduraino
4. Eskuratze-mailaren bilakaera zehazteko tresnak ezagutzea
5. Giza Nutrizioko eta Dietetikako Graduan erabilitako metodologia aktiboetan oinarritutako jardueren adibideak
6. Irakasgai eta gradu konkretu baten testuinguruan, jasangarritasuna eta gizarte-erantzukizuna gaitasuna garatzeko jarduera oso bat diseinatzea, ebaluazioa barne

Lantzen diren GJH: 4. Kalitatezko Hezkuntza

Metodologia

Irakasgaiaren modalidadea hibridoa izango da: eskola birtualak (on-line) eta aurrez-aurreko eskolak uztartukoa ditu. Gai-zerrenda on-line saio batean, eta aurrez-aurreko bitan banatzen da. On-line saioa egelapi plataformaren bidez emango da, eta grabatuta geratuko da (parte-hartzaileen oniritzia edukitzekotan). Aurrez-aurreko saioak modu bateratu baten jarraituko dira Leioan eta Gasteizen zuzeneko streaming bidez. Modu horretan bi campusetako ikasleek aldi berean ikasi egingo dute. Leioako parte-hartzaileen zalantzei emandako erantzunak baliogarriak izango dira Gasteizeko parte-hartzaileentzako adibidez.

Lehenengo gaiek Jasangarritasuna gaitasunaren ikuspegi teorikoa emango dute, baita gaitasun hori zeharkakoa eta gainerako irakasgaiekin koordinatua izateko aukera ere. Hurrengo fasean, edozein irakasgaitan ezartzeko metodologia aktibo-kooperatiboetara bideratutako tresnak eta baliabideak emango dira.

Hori guztia ZEHARGAITUZ taldearen esperientzian oinarrituko da, eta horrek ezarpenaren onurak deskribatzeko eta azken urteetan aurkitutako mugak gainditzeko moduak proposatzeko aukera emango du. 6. gaian, gaitasuna garatzeko banakako jarduera-proposamena egingo da, aurreikusitako 15 ordu ez-presentzialetan esleitutako tutorearen eskutik.

Parte-hartzaile bakoitzak bere proposamena irakasgai jakin batera egokituta entregatu beharko du, irakasgaiaren testuingurua kontuan hartuta (zein gradutan ematen den, maila, gai-zerrenda).

Tailerreko tutoreek diseinu bakoitza ebaluatuko dute, hobekuntzak proposatuko dituzte eta inplementatzeko izan daitezkeen arazoak identifikatuko dituzte.

Zereginak

Tailerrean izen eman dutenek, saioak jarraituko beharko dituzte dute eta lana garaiz eta behar bezala entregatu beharko dute derrigorrean tailerraren aprobetxamenduaren ziurtagiria jaso ahal izateko.

Ebaluazioa /Akreditazioa

Bertaratzea (aurrez-aurreko saioak) eta lana ebaluatuko dira.

Datuak

Iraupena

1 kr. 10 ordu presentzial eta 15 ordu ez-presentzial

On-line 3 ordu (e-gelapi)

Aurrez-aurreko 3 ordu Leioan eta Gasteizen aldi berean (zuzeneko streaming)

Aurrez-aurreko 4 ordu Leioan eta Gasteizen aldi berean (zuzeneko streaming)

Datak

Ekainak 17, 18 eta 21

Ordutegia

Ekainaren 17an (09:00 -12:00 on-line), 18an (09:00-12:00 aurrez-aurre Leioan edo Gasteizen) eta 21ean (09:00-13:00 aurrez-aurre Leioan edo Gasteizen)

Lekua

Bizkaiko Campusa (Leioa) eta Arabako Campusa (aukeratu non)

Partaide kopurua

Gehienez 25 pertsona campus bakoitzeko

Hizkuntza

Euskaraz

Campusak

Bizkaia eta Araba

Irakaslea

Idoia Larretxi Lamelas. (ZEHARGAITUZ taldeko kideek ikasleak tutorizatuko dituzte)

Izena emateko epea

Deialdia zabaldu eta astebetetz luzatuko da izena emateko epea

Izena emateko baldintzak eta matrikula baliogabetzea

Izena langileen atariaren bidez eman beharko da. Ikasle kopurua mugatua izanik, partaideen izena ematearen ordenari, aukeraren lehentasunari eta campusari jarraiki hautatuko dira. Lantegian izena eman eta onartua izan den norbaitek ezin izango balu bertara joan, 72 ordu aurretik jakinaraz dezan eskatzen diogu, sortutako hutsunea kanpoan geratu den beste pertsona bati eskaintzeko.